



**IFZ:** identifikazio fiskaleko zenbakia (kasu honetan, pertsona fisikoa).

**Hornidura kontratuaren erreferentzia:** zure kontratua identifikatzen duen kodea. Edozein kudeaketa egiteko, gure arreta kanalek kode hori eskatuko dizute identifika zaitez.

**Fakturaren zenbatekoa guztira:** guztizko zenbatekoa da, zure fakturan zehazten diren kontzeptu guztiak barne hartzen ditu.

## **2 FAKTURAZIO LABURPENA ETA KONTSUMOAREN BILAKAERA**

Energiaren laburpena, kontratatutako zerbitzuak eta horiei dagokien BEZa.

“Kontsumoaren bilakaera” ikus dezakezu eskuinean agertzen den grafikoan. Bertan, **azken 14 hilabeteetako elektrizitate kontsumoa dago xehatuta, kWh-tan.**

## **3 HORNIDURAREKIN LOTUKO DATUAK**

**Kontagailu zenbakia:** zure neurgailua edo kontagailua identifikatzen duen kodea

**Enpresa banatzailea:** tzure enpresa banatzailearen izena. Harekin harremanetan jarri behar duzu sare elektrikoarekin loturiko matxurarik edo gorabeherarik izanez gero.

**Sarbide kontratuaren zenbakia:** enpresa banatzailearekin duzun hornidura kontratuaren erreferentzia.

**Hornidura puntuaren identifikazioa (CUPS):** hornidura puntua identifikatzen du edozein enpresa banatzaile edo merkaturatzailearen aurrean.

**Ordaintzeko era:** fakturak ordaintzeko aukeratzen duzun modua. Kasu gehienetan bankuan helbideratuz egiten da. Ordainketa helbideratuta ez dagoenean, barra kode bat agertuko da fakturaren atzealdean. Kasu horretan, hitzartutako banku erakundeetan ordaindu beharko da, faktura bera aurkeztuta.

**Erakundearen datuak, IBAN, BIC eta agindu kodea:** ordainketak helbideratzen diren lekua. IBANaren azken digituak ezkutatu egiten dira zure bankuko datuen konfidentzialtasuna bermatzeko.

**Kontratatutako potentzia:** kW-tan agertzen da..

**Sarera sartzeko bidesaria (ATR):** zure hornidura puntuari sarera sartzeko dagokion bidesaria.

**Bidesarien prezioak:** aplika daitezkeen sarbide bidesariak BOEn argitaratu zireneko data.

**Kontratuaren iraupena:** Kontratua amaitzen den data; une horretan, hortaz, berriztatu edo indargabetuko litzateke. Automatikoki berritzen da.

**Helbide fiskala:** zerga arloko administrazio publikoan erregistratutako helbidea.

#### 4 FAKTURAZIO XEHETASUNAK ETA KONTSUMOAK


Energia hornidurarekin loturiko kontzeptuak:

**Fakturatutako potentzia:** kontratatutako potentzia (kW) faktura aldiaren egun kopuruarekin eta kW-aren prezioarekin biderkatuta kalkulatzen den zenbateko finkoa.

**Fakturatutako kontsumoa:** fakturatutako aldi egin duzun kontsumoaren zenbatekoa. Aldi horretarako kontsumoa (kWh) eta kWh-aren prezioa biderkatuta kalkulatzen da.

**Beharpenak:** halakorik badagokio, aurreztutako zenbatekoa adierazten da.

Elektrizitatearen gaineko Zerga: zerga berezia, alkohola, tabakoa edo hidrokarburoak zergapetzen dituztenak bezalakoa. Zerga Bereziei buruzko Legeak (38/1992) ezartzen duen moduan kalkulatzen da, kontsumoengatik ordaintzen dena eta fakturatutako potentzia bider % 5,1127 eginez.



#### 5 ZERBITZUAK ETA BESTE KONTZEPTU BATZUK

Energiaren osagarri diren beste zerbitzu batzuekin loturiko kontzeptuak

**Neurketa ekipamenduen alokairua:** fakturazio aldiko egun kopurua kontagailuaren alokairuaren prezioarekin biderkatuz kalkulatzen da, kontagailua bezeroarena ez bada, kasu horretan ez baita fakturitzen. Administrazioak arautzen du prezioa.

#### 6 ENERGIA GUZTIRA, SERBITZUAK ETA BESTE KONTZEPTU BATZUK

Energiagatik, zerbitzuengatik eta aurreko ataletan zehaztutako beste kontzeptuengatik fakturatu beharreko guztizko zenbatekoa jasotzen du. Zenbateko horri BEZa gehitzen zaio.

- BEZ: Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Indarrean dagoen tasa aurreko kontzeptuen baturari aplikatzen zaio. Kanarien kasuan, IGIC aplikatuko litzateke indarrean dagoen tasan, eta Ceuta eta Melillako kasuan IPSI, indarrean dagoen tasan.
- Fakturaren zenbatekoa guztira: ordaindu beharreko fakturaren azken zenbatekoa da.

Batzuetan lerro bat baino gehiago ager daiteke kontzeptu bakar batean. Bi arrazoiengatik gerta daiteke hori:

Fakturazio aldi baten barruan aplikatu beharreko prezioetan aldaketaren bat gertatu denean.

**Ordu tarte bat baino gehiago** kontratatu direnean.

Zure **kontsumoen xehetasunak**: kontagailuaren aurreko eta egungo irakurketak datoz zehaztuta, baita horiei dagozkien datak ere. Egungo irakurketari aurreko irakurketa kenduta, zure fakturan jasotako aldian egindako kontsumoa ateratzen da (kWh). Kontsumo hori fakturazi xehetasunetan, fakturatutako kontsumoan, agertzen denaren berdina da.

Irakurketa mota desberdinak egon daitezke:

- Benetako irakurketa enpresa banatzaileak zure horniduraren kontagailuan dagokion egunean irakurritako balioa da.
- Irakurketa balioetsia enpresa banatzaileak kalkulatzen duen balio bat da, kontsumo historikoak oinarri hartuta eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioak arauz ezarritako formula baten arabera.

Konpainia merkaturatzaileak gure etxean egindako irakurketetan oinarritutako informazioa da.



Iturria: EVE, Kontsumobide; Iberdrola